


Urarte

Energia komunitatea

Kokapena



Urarte, Bernedo, Mendialdea Koadrila, Araba
Biztanle kopurua: Urtean zehar, 20 Udan, 50-60 lagun inguru
Sustatzailea: Urarteko Administrazio Batzordea
Energia mota: eguzki energia
Harremanetarako:
Bernedoko Udala
945 37 80 41

TESTUINGURUA

Zerk eta zergatik sustatu da energia lanketa?

Herritarren borondatek abiatu zen proiektua, behetik gorako prozesu batean, hain zuzen. Izan ere, herrian hainbat bizilagunek eguzki-panelak zituzten euren etxeetako teilatuetan, eta horrenbestez, pausu bat aurrerago eramatea erabaki zuten, herritar guztiei zerbitzua emango zien instalazio fotovoltaikoa sortu asmoz. Gauzak horrela, gurditik tira egingo zuten herritarrak elkartu eta talde motorra aktibatu zuten.

Sustatzaileek azaldu legez, lehen pausuak ematen hasi aurretik, formakuntzari ekin zioten. Izan ere, gaiaren inguruan interesa izan arren, ez zuten oso argi zein bidetik jo behar zuten halako azpiegitura bat abian jartzeko. Ibilbidea, halaber, herriarekin batera egin zuten hasieratik eta eman dituzten pausu guztiak bizilagunekin partekatu dituzte.

Ibilbide honetan E+P kooperatiba izan dute bidaide. Lehen pausuak ematen hasi aurretik, ikerketa bat egin zuten herriaren beharrak ezagutzeko. Halaber, bizilagunen energia kontsumo ohiturak aztertu zituzten fakturen bitartez. Aukera ezberdinak aztertu ostean, eguzki-energiaren aldeko hautua egin zuten, lehen aukera bezala. Horiek horrela, 35 KW ekoiztuko dituen instalazio fotovoltaikoa jarri dute Urarten: orotara, 77 panel jarri dituzte herriaren kanpoko aldean. Antza, legediak dio ezin direla 100 KW baino gehiago ekoitzi eta sortzen den energia soilik 500 metrora ahal dela garraiatu. Horren-

bestez, azpiegiturak herriko muin osoa hartzen du, baita errepidean dauden etxe batzuk ere.

Plaken kokapena

Panelak Administrazio Batzordearenak dira, eta segidako leku hauek proposatu ziren instalazioa kokatzeko:

1. Komunitatearen biltegi batean
2. Batzarra elkartzen den eraikinean, elkartean.
3. Hiri-eremu gisa agertzen den lursail batean.

Aukera guztiak aztertu eta gero, herriko sarreran dagoen lantegia-
ren ondoko lur sail batean kokatzea erabaki zuten, guztietatik apro-
posena zelako.

Lehen kolpean herriko 25 bizilagunek egin dute bat proposamena-
rekin; Urarteko Administrazio Batzarra ere bazkide izango da. Sus-
tatzailleek azaldu legez, azpiegitura herriarena izango da eta energia
komunitateak izango du ustiatzeko ahalmena. Juridikoki, Urarte-
ko energia komunitatea E+P kooperatibaren zati bat bilakatuko da
(orain Enercoop), eta erabiltzaile guztiak bertako kideak/bazkideak
izan behar dute.



PROIEKTUAREN HELBURUAK

Buru-jabetza: Herri txikiek euren baliabideak kudeatzeko aukera daukate. Urartek bere basoak, ura, egurra, ondarea... kudeatzen du, eta hemendik aurrera energia ere.

Urtaroko bizi-lagunen kalitatea hobetzen da; energiagatik gutxiago ordainduko dute.

Parte hartzea bultzatzen du; erabakiak batzarrean hartzen dira. Alta, energia-komunitateak erabakiak batzarrean hartzen dituen barne-araudia du (KW bakoitzeko prezioa, komunitatearen organo kudeatzailea, bazkide berriak onartzeko aukera).

PROZESUA

Lanketa garatzeko eman diren faseak

Hasierako data	Amaierako data	Ekintza / lanketa
2021/02/17	2021/02/17	Hasierako bilera
2021/03/12	2021/03/15	Webinar Informatiboa Komunitate Energetikoa
2021/03/18	2021/03/22	Udal talde kudeatzailearekin bilera
2021/03/18	2021/03/22	Kokalekuen miaketa
2021/03/26	2021/03/29	Talde motordunak dituzten webinarak
2021/04/09	2021/04/12	Parte-hartze prozesuko tailerrak eta proiektuaren sozializazioa
2021/04/15	2021/04/26	Prototipatzeko datuak biltzea
2021/04/29	2021/05/10	Prototipoaren diseinua
2021/05/13	2021/05/24	Gobernantza-planeko prestakuntza-tailerra
2021/05/27	2021/05/31	Energia-komunitatea eratzea
2021/06/03	2021/07/03	Behin betiko proiektuaren diseinua
2021/07/03	2021/07/23	Proiektua gauzatzea
2021/07/27	2021/08/03	Autokontsumoa hastea (zehazteke)



ALDERDI EKONOMIKOA

- **Aurrekontua:**
 - Proiektuak 48.000 euroko aurrekontua du.
 - Bideragarritasunari buruzko lanketaren erredakzioa 4.600 euro

- **Finantziak:**

Dirulaguntzak

Kostu osoaren %70a jaso dute diru-laguntzatan. Herri Administrazioak aurreratu du dirua, eta falta den kopurua komunitateak ordainduko dio urtero canon bat ordainduta.

Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen ditu Administrazio Bazarrek sustatutako energia-komunitateak; ia %40.

Energiaren Euskal Erakundea (8.000 euro jaso zituzten, baina proiektua epe baten barruan garatu behar zuten, galdu egin dute diru laguntza). Instalazioaren %20 finantza dezake.

Leader (20.000 euro jaso dituzte, baina oraindik dute jaso)

PRAKTIKAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

Praktikaren indarguneak

- Argi-indarra herritarren esku geratzen da; prezioa merketzen da.
- Parte hartzea bultzatzen da.
- Pobrezia energetikoari aurre egiten dio.
- Gutxiago kutsatzen da.

Praktikaren ahulguneak

- Eskarmentu asko duen jendeak ere ez daki asko gaiaren inguruan; zaila izaten da prozesua hutsetik abiatzea.

Eredu hau errepikatzeko jarraitu beharreko pausuak:

- Talde motorra sortu (garrantzitsua)
- Sentsibilizazio lana egin herritarren artean.
- Egin/garatu beharreko azterketak
- Aurkeztu beharreko agiriak, eta diru laguntzak lortu.
- Eskatu beharreko baimenak....

